



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PRENTSARAKO OHARRA  
2017/03/20

## **Batzar Nagusiek eskaria egin dabe, Aldundiak MSH-VSMan abiadura mugea orduko 120 km-ra handitzeko aukerea "aztertu" daian**

Bizkaiko Batzar Nagusiak bat etorri dira gaur, Foru Aldundiak Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidean (MSH-VSM) abiadura mugea handitzeko aukerea aztertzeagaz. Idea Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztu dau, eta arauz besteko proposamen baten bitartez, Imanol Pradalesek zuzentzen dauen sailak gaur egungo abiadurearen mugea orduko beste 20 km-tan, orduko 100 kilometrotik 120 kilometrora, hain zuzen be, handitzearen aukerea aztertzeke eskatu dau Bizkaiko Batzar Nagusietako Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Batzordean. PP taldeak Euzko Abertzaleak (EAJ-PNV), Euskal Sozialistak (PSE-EE) eta PP taldeen aldeko botoak jaso ditu, eta EH Bildu eta Podemos Bizkaia abstenidu egin dira bozketan.

Jesús Isasi bozeroaleak, neurri hori “Hegoaldeko Saihesbidearen erabilera handitzeko” lagungarri izan daitekela adierazo dau. Bidesaria dauen autopista horretatik “10.700 ibilgailu” igaroten dira, horreetatik bi mila astunak. Holan arindu egingo litzateke egunero “102.000 ibilgailuk” erabiltzen daben A-8ko trafikoa. Isasik adierazo dauenez, azterketa horrek, “ikuspegi teknikitik eta juridikitik” neurri hori apliketea bideragarria dan ala ez erakutsiko leuke.

Foru Gobernua eusten daben talde biak bat etorri dira azterlan hori egiteko popularren proposamenagaz. Dana dala, Aitor Ibarra jeltzaleak adierazo dau muga hori apliketea, tunelen arloan indarrean dagozan araudien kontra joan daitekela. Gogoratu dauenez, MSH-VSMren trazauaren “17,8 kilometroen” erdia lur-azpitik doa. EAJ-PNV taldeko batzordekidearen eretziz, txostenak argitu egin beharko dau beragaz “istripugarritasun arriskuak” dituan abiadurearen handitzeak, erabiltzailearengan eragingo dauen denporaren aurrezpena “konpentsetan” dauen ala ez. Bere eretziz, aurrezpen hori “1,5 minutu” ingurukoa izango litzateke ibilpide osoan.

EH Bilduk, bere aldetik, txostena alderdi legetan zentrau behar dala uste dau, eta ez horrenbeste azpiegitura abiaduraren mugea handitzeko pretauta dagon ala ez aztertzean. Zigor Isuskiza batzordekideak zalantzan jarri dau neurri horrek autopistea gehiago erabiltea eragingo dauenik. Alderdi hori, bere ustetan, lotuago dago “bidesaria daukan errepidea izateagaz”. Podemos Bizkaiak egin dauen moduan, koalizino abertzaleak, abiadura handitzeak izango leuken “kostu ekologikoa” kontuan izan daitekela eskatu dau.

### **INDUSTRIALDEA SORTZEA MONTEALEGREN**

Horrez gain, batzordeak Bizkaiko Talde Popularraren beste ekimen bat onartu dau. Bertan, “Montealegren, Alonsotegiko udalerrian, dagozan eta “Habiditerenak” esaten jakezan lurretan industrialdea sortzea bultzatzeko eskatzen jako” Foru Aldundiari. PP taldeak EAJ-PNVren, PSE-EEren eta Talde Mistoaren aldeko botoak jaso ditu oraingoan be. Podemos Bizkaiak kontrako botoa emon dau eta EH Bildu abstenidu egin da.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Javier Ruiz PPko bozeroaleak, Aldundiak, huts egin eban Habidite proiektua bultzatzeko “4,8 milioi euroren” truke erosi eban lurraren “200.000 metro karratuei” erabilera industrialia emoteko proposamena defendidu dau. Ordutik “hamar urte baino gehiago” igaro ostean, ekimen horrek “gitxienekoen konpromisoa” erakutsi gura dau “Aldundiaren irudia garbitzeko” eta “Enkarterrigaz dagon zor morala” ordaintzeko.

Aldundia eusten daben talde biak –EAJ-PNV eta PSE-EE– proposamenaren alde agertu dira, bat datorrelako Foru Gobernuaren asmoakaz. Josu Montalbán sozialistaren eretziz, “beharrezkoa” da industrialde hori sustatzea Enkarterriko langabezia tasak murriztuko dituen proiektuak erakarteko. Izan be, langabezia tasak Bizkaiko “beste eskualde batzuetakoak baino bi aldiz handiagoak dira”.

EAJ-PNVko María Presak, urtarrilean egindako kontroleko osoko batean Aldundiak emon eban erantzuna gogoratuazo dau. Orduan Imanol Pradales foru diputatua izan zan Foru Erakundearen planen barruan “formatu handiko” erabilera industrialeko eta jarduera ekonomikoko gune bat aurrera eroatea egoala, eta horretarako Bilbo Metropolitarrako Lurralde Plan Partziala aldatu beharko zala esan ebana. Dana dala, asmo hori “oraindino” ez da ezelango proiektutan zehaztu.

“Zertarako eta norentzat?”, galdetu dau Neskutz Rodríguez Podemoseko bozeroaleak, eta lurra “gizarte eta alkartasun arloetako ekonomiako” proiektuak aurrera eroateko gordetea eskatu dau. Bere taldea ez dago lur horreentzat jomuga industrialia bultzatzearen alde, Elkartegien “%38” jarduera barik dagonean. “Ez dogu beste Sestao Bai bat gura”, esan dau.

EH Bilduko Joseba Gezuragak kritikau egin dau ekimenaren onespena “aurrekontuetan abalik ez daukan konpromisoa” baino ez dala eta, hori dala eta, “zehaztasun handiagoa” eskatu dau, proiektuei eta epeei jagokenez. Etorkizunerako, egotekotan, proiektua Udalagaz “kontrastetea” eskatu dau.

## BILBAO BIZKAIA CARD TXARTELA, UDAN

Beste alde batetik, Aldundiak “Bilbao Bizkaia Card” txartelaren egungo egoeraren eta Zugaztietan dagon Meaztegi golf zelai publikoaren kudeaketarako eta ustiapenerako lizitazio prozesuaren barri emon dau batzordean.

Talde Mistoak eta EH Bilduk eskatuta, Imanol Pradales Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako diputatuak Batzar Nagusien aurrean azaldu dauenez, Aldundiak eta Bilboko Udalak, Lan Ekintza soziedadearen bitartez, “kudeaketa zuzeneko” hitzarmena ezarriko dabe Bilbao Bizkaia Card txartelaren existentziari jarraipena emoteko, “datorren udan” barriro be martxan egin daiten.

Pradalesek azaldu dauenez, joan dan zezeilaren 7an, esleipena eukan Neoturismo enpresegaz indarrean egoan kontratua bertan behera iztea erabagi eban Aldundiak, enpresa horrek hainbat erakundegaz “37.667 euroko” zorra sortu ebala egiaztatu ostean. Horreen artean Bilbao Ekintza (“15.000 euro” inguruko zorra), Guggenheim Museoa (13.000 euro), Bizkaiko Transbordadorea (5.010 euro), Arte Eder Museoa (2.115 euro) edo BGP-CTB (1.900 euro) dagoz. Kaltetuen artean Euskal Museoa eta Eleizbarrutiko eta Bakearen museoak be badagoz, eurakaz sortu eban zorra askoz txikiagoa izan zan arren, 658, 114 eta 105 eurokoa, hurrenez hurren.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Oposizinoari erantzunez, Pradalesek esan dau kontratua bertan behera iztea ez jakola “ezer” kostauko Aldundiari, Foru Aldundiak softwarea eta makina baliobakotzaileak eskuratzeko inbertidu ebazan “60.000 euroak” berreskuratu diralako. Enpresak ekipamendu informatikoa itzuli dau, eta udatik aurrera barriro erabiliko da.

2014tik txartelaren kudeaketeaz arduratzen zan enpresek Aldundiari adierazo deusanez, bere urteerea “txartelaren kudeaketaz haraindi doazan arazo ekonomikoak dirala eta gertau da”. Pradalesek esan dauenez, arazoak, “Sevillan edo Mallorkan” gertatu diran antzeko egoeren jatorrian dagozan “diruzaintzagaz, likideziagaz eta kaudimenagaz erlazionautako arazoetatik” sortu dira. Uri horreetan be antzeko txartelak kudeatzen ditu Neoturismo enpresak.

Bizkaian, 2014an (garagarriletik abendura) “740” txartel saldu ziran; “1.447”, 2015ean; eta “1.887”, 2016an. Eredu barriagaz Aldundiak erabilerea zabaltzea aurreikusten dau “komertzializazinarako bideak hobeak” izango diralako. Horretarako, “baliabide turistiko askoren esperientzia eta bat egitea daukaguz geure alde”, esan dau.

Bilbao Bizkaia Card txartelak “%50era arteko” beherapenak eskintzen ebazan “78 erakundetan”, garraio publikoan, museoetan, ostalaritzako establezimenduetan, jatetxeetan, dendetan... 30, 35 edo 40 euro balio eban txartela aurkeztuz (egun 1erako, 2rako edo 3 egunetarako balio eben txartelak ziran).

#### LIZITAZINO BI MEAZTEGI GOLFERAKO

Horrez gain, eta PPK eta Talde Mistoak eskatuta, Pradalesek “Meaztegi” golf zelai publikoaren kudeaketarako eta ustiapenerako lizitazino prozesuaren barri emon dau batzordean. Diputatuak iragarri dauenez, Azpiegiturak foru soziedadeak “alkarren artean osotzen diran” lizitazino bi atera ditu: bat kirol konplexuko ustiapen, kudeaketa eta mantentze-lan zerbitzuak kontratatuko, “5.646.641 euroko” urteerako prezioagaz, eta bestea ostalaritza arlorako, “3.186.729 euroren” truke. Lehiaketa biak martiaren 31n bukatuko dira.

Hamar urte indarrean egon ostean, une honetan esleipena daukan enpresaren kontratua datorren bagilaren 30ean bukatuko da, eta asmoa, enpresa “barriak” gunea garagarrilaren letik aurrera bere esku hartu ahal izatea da. Kirol arloari jagokonez, esleipenaren epea 2021era artekoa izango da, beste urte birako luzapenagaz. Eta arlo gastronomikoari jagokonez, esleipena irabazten dauen enpresa urte bi egongo da bertan, beste lau urte luzatzeko aukereagaz, jagokozan luzapenen bitartez.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

NOTA DE PRENSA  
20/03/2017

## **Las Juntas Generales piden que la Diputación "estudie" aumentar a 120 km/h el límite de velocidad de la VSM**

Las Juntas Generales de Bizkaia se han mostrado hoy conformes a que la Diputación Foral analice la posibilidad de subir a 120 km/h el límite de velocidad en la Variante Sur Metropolitana (VSM). La idea ha partido del grupo Popular Vizcaíno que, a través de una proposición no de norma, ha pedido hoy en la comisión de Desarrollo Económico y Territorial de la Cámara vizcaína que el departamento que dirige Imanol Pradales realice un estudio sobre si aumentar otros 20 km/h el límite de velocidad actual, pasando de 100 a 120 km/h. El PP ha logrado el apoyo de los grupos Nacionalistas Vascos (PNV), Socialistas Vascos (PSE-EE) y Mixto, mientras que EH Bildu y Podemos Bizkaia se han abstenido en la votación.

El apoderado popular Jesús Isasi ha señalado que la medida podría servir “para aumentar el uso” de la “Supersur”, autopista de peaje por la que transitan “10.700 vehículos”, dos mil de ellos pesados, y aliviar así el tráfico en la A-8 que es frecuentada al día por “102.000 vehículos”. Isasi ha explicado que el estudio conduciría a aclarar si es viable “técnica y jurídicamente” aplicar dicha medida.

Los dos grupos que apoyan al Gobierno foral han mostrado su conformidad con la propuesta popular para elaborar dicho estudio. El jeltzale Aitor Ibarra ha advertido, en cualquier caso, de que la aplicación de este nuevo límite puede chocar con la normativas existentes en materia de túneles. Ha recordado que la mitad de los “17,8 kilómetros” del trazado de la VSM es subterráneo. Para el apoderado del PNV, el informe debe aclarar si un aumento de la velocidad, que conlleva “riesgos de accidentalidad”, “compensa” el ahorro de tiempo para el usuario, que ha cifrado en “apenas 1,5 minutos” en todo el trazado.

Por su parte, EH Bildu entiende que el informe debe centrarse en los aspectos legales y no tanto en si la infraestructura está preparada para aumentar el límite de velocidad. Su juntero Zigor Isuskiza ha dudado de que la medida garantice el que se vaya a usar más. Este aspecto va más ligado, a su juicio, a que “sea una carretera de peaje”. Al igual que Podemos Bizkaia, la coalición abertzale ha pedido que se tenga en cuenta el “coste ecológico” que supondría un aumento de la velocidad.

### **CREACIÓN DE UN ÁREA INDUSTRIAL EN MONTEALEGRE**

Asimismo, la comisión ha aprobado otra iniciativa del grupo Popular Vizcaíno que insta a la Diputación foral a “promover e impulsar la creación de un área industrial en los terrenos llamados de “Habidite”, en Montealegre, situados en el municipio de Alonsotegi”. El PP ha contado nuevamente con el apoyo de PNV, PSE-EE y Mixto. Podemos Bizkaia ha votado en contra y EH Bildu se ha abstenido.

El portavoz del PP, Javier Ruiz, ha defendido la propuesta para dar un uso industrial a los “200.000 metros cuadrados” de terreno que la Diputación adquirió por “4,8 millones de euros” para impulsar el fallido proyecto de Habidite. Tras pasar “más de una década” desde aquello,



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

esta iniciativa representa un “compromiso de mínimos” para “limpiar la imagen de la Diputación” y saldar “una deuda moral con Enkarterri”.

Los dos grupos que apoyan a la Diputación –PNV y PSE-EE- han apoyado la propuesta porque “coincide” con las pretensiones del Gobierno foral. Para el socialista Josu Montalbán es “necesario” fomentar este área industrial para atraer proyectos que reduzcan las tasas de desempleo de Enkarterri “que son el doble que las de otras comarcas” de Bizkaia.

María Presa, del PNV, ha recordado la respuesta dada por la Diputación en un pleno de control celebrado en enero. En aquella ocasión el diputado foral Imanol Pradales ya avanzó que estaba dentro de los planes de la Institución foral desarrollar una zona de uso industrial y actividad económica “de gran formato”, para lo que se modificará el Plan Territorial Parcial del Bilbao Metropolitano, si bien “todavía” no se ha concretado en ningún proyecto.

“¿Para qué y para quién?”, ha preguntado la portavoz de Podemos Neskutz Rodríguez quien ha apostado por que se reserve el suelo a desarrollar proyectos de “economía social y solidaria”. Su grupo no se plantea apoyar un destino industrial para estos terrenos cuando “el 38%” de los Elkartegis se encuentran sin actividad. “No queremos un nuevo Sestao Bai” ha dicho.

Joseba Gezuraga, de EH Bildu, ha criticado que la aprobación de la iniciativa viene a ser un “compromiso que no tiene el aval presupuestario” por lo que ha pedido “mayor concreción” en cuanto a proyecto y plazos. Para el futuro, ha pedido que de existir, el proyecto “se contraste” con el ayuntamiento.

#### LA TARJETA BILBAO BIZKAIA CARD, EN VERANO

Por otro lado , la Diputación ha informado en la comisión de la situación actual de la tarjeta “Bilbao Bizkaia Card” y del proceso de licitación para la gestión y explotación del campo de golf público Meaztegi, de La Arboleda.

A petición de los grupos junteros Mixto y EH Bildu, el diputado de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, ha informado a la Cámara vizcaína de que la Diputación y el Ayuntamiento de Bilbao, a través de su sociedad Lan Ekintza, establecerá un convenio de “gestión directa” para dar continuidad a la existencia de la tarjeta Bilbao Bizkaia Card con el propósito de que esté nuevamente en marcha “este próximo verano”.

Pradales ha explicado que la Diputación decidió el pasado 7 de febrero rescindir el contrato con la adjudicataria Neoturismo, después de constatar que dicha empresa había contraído una deuda de “37.667 euros” con distintas entidades, entre las que ha citado Bilbao Ekintza (con una deuda que ronda los “15.000 euros”), Museo Guggenheim (13.000 euros), Transbordador de Bizkaia (5.010 euros), el Museo Bellas Artes (2.115 euros) o el CTB (1.900 euros). Entre los perjudicados se encontraban también el Euskal Museoa, y los museos Diocesano y de la Paz, aunque con deudas muy inferiores de 658, 114 y 105 euros, respectivamente.

Respondiendo a la oposición, Pradales ha señalado que la rescisión del contrato no le costará “nada” a la Diputación, ya que los “60.000 euros” invertidos por la institución foral para la adquisición del software y de las canceladoras, han sido recuperados. La empresa ha devuelto el equipamiento informático, el cual será reutilizado a partir del verano.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

La empresa que llevaba la gestión de la tarjeta desde el año 2014, ha comunicado a la Diputación que las causas de su salida “se deben a problemas económicos que van más allá de la gestión de la tarjeta”. Según Pradales, se derivan de “problemas de tesorería, liquidez y solvencia económica” que estarían en el origen de situaciones similares en “Sevilla o Mallorca” en donde Neoturismo gestiona tarjetas parecidas.

En Bizkaia, se vendieron “740” tarjetas en 2014 (de julio a diciembre); “1.447”, en 2015; y “1.887”, en 2016. La Diputación espera incrementar su uso con el nuevo modelo al “mejorar los canales de comercialización”. Para ello, “contamos con la experiencia y adhesión de muchos recursos turísticos”, ha dicho.

La tarjeta Bilbao Bizkaia Card ofrecía descuentos “de hasta el 50%” en “78 entidades”, entre transporte público, museos, establecimientos hoteleros, restaurantes, tiendas..., a raíz de la presentación de una tarjeta cuyo precio era de 30, 35 o 40 euros (tarjetas válidas para 1,2 o 3 días).

#### DOS LICITACIONES PARA EL MEAZTEGI GOLF

Asimismo, y a petición del PP y del grupo Mixto, Pradales ha informado también del proceso de contratación para la gestión y explotación del campo público de golf “Meaztegi”. El diputado ha anunciado que la sociedad foral Azpiegiturak ha sacado dos licitaciones distintas “que se complementan”: una para contratar los servicios de explotación, gestión y mantenimiento del complejo deportivo, con un precio de salida de “5.646.641 euros”; y otra para el área de restauración, por “3.186.729 euros”. Ambos concursos finalizan el 31 de marzo.

Tras una década en vigor, el contrato de la actual adjudicataria concluye el próximo 30 de junio y la intención es que la “nueva” empresa pueda hacerse cargo del complejo a partir del 1 de julio. En lo que se refiere a la parte deportiva, el plazo de adjudicación será hasta el año 2021, con prórroga para dos años más. Y en lo que se refiere al apartado gastronómico, la empresa ganadora estará dos años con opción de otros cuatro mediante las correspondientes prórrogas.